

Ezpalak

JON TORNER

Aleph argialetxe esloveniarrak euskal poesiaren antologia bat kaleratu du eslovenieraz, *Branil bomocetovo hiso. Antologija moderne baskovske poezije* (Nire aitaren etxea. Euskal poesia modernoaren antologia) izenburupean. Liburuan jaso dituzten 23 euskal idazleen poemak Ciril Berglesek itzuli ditu.

Pilar Barandiaran, Joxe Migel Barandiaran antropologoaren iloba, hilaren 1ean zendu zen, 96 urte zituela. Osabaren idazkari eta zerbitzaria izan zen Pilar hainbat urtez; erbeste-ean zegoenean alboan izan zuen eta bere ikerketan lagundu zion.



Artium museoak ia 100.000 bisitari izan zituen 2007an. Bazkide kopurua ere %11 igo da eta jada 650 bazkide ditu Gasteizko museoak. 2007an 200 ekimenetik gora antolatu dituzte eta nazioarteko hedapenari ere ekin dio Artiumek. Bestalde, 2008an *Art+Sound* ekimenarekin jarraituko du museoak. Hala, hainbat kontzertu eta antzerki emanaldi izango da Artiumen.

Jabier Villarreal artista nafarraren argazki muntaiak izango dira ikusgai hilaren 28a arte Tolosako (Gipuzkoa) Aranburu jauregian. *Paralelo 42* izeneko erakusketan, Lurraren zati horretan dauden herrialdeetako irudiak bildu ditu Villarrealek.



Juan Pardok eta Juantxo Egañak *Historia fotográfica de la última Guerra Carlista* (Txertoa) argazki liburuan II. Karlistaldiko 300 irudi inguru bildu dituzte. 1872 eta 1876 arteko argazkiak dira guztiak. Liburua karlisten ikuspegitik osatu dute eta argazki gehienetan bando horretako pertsonak agertzen dira. Irudiak aukeratzeko orduan, lehentasuna kanpoko eta taldeko argazkiei eman dietela azaldu dute autoreek.

Lucio dokumentalak jarriko du abian Goieniz-eko Zinema Zikloa

Urtarrilaren 10etik martxoaren 12ra bitartean egingo da Beasaingo Goieniz Zineklubak antolatutako zikloaren 27. edizioa. Luzio Urtubia anarkistaren inguruko *Lucio* dokumentalak emango dio hasiera ziklori, urtarrilaren 10ean. Egitaraua gaurkotasan handiko beste zazpi filmek osatuko dute: *Cuando naces, ya no puedes esconderte* (urtarrilaren 17an), *No sos vos, soy yo* (31n), *Persepolis* (otsailaren 7an), *Los Climas* (14an), *Hotel Tivoli* (28an), *La voda de Tuya* (martxoaren 6an) eta *Redacted* (12an). Emanaldi guztiak Beasaingo Usurbe Antzokian izango dira, gaueko 21:00etan.



Euskarazko foroak sortzeko tresna

FOROAK.COM webgune berriak euskarazko foroak modu errazean sortzeko aukera eskaintzen du. Ekimenaren sustatzaileen hitzetan, egungo teknologia berrietan euskara zabaltzea dute helburu: "Euskal jende askok sortzen ditu 'aurretik egindako foroak' delakoak, denak gazteleraz. Hau dela eta, ideia eta ideien ondorioz, proiektu honetara heldu gara; euskaldunek erabiliko dituzten foroaren sorrerara hain zuzen ere". Posta zerbitzua ere badu Foroak.com-ek.

Jaurlaritzak ez du software librerik erabiliko

EUSKO JAURLARITZAK bere departamentuetan software libre ezartzeko aukerari buruzko ikerketa egin du. Ateratako ondorioen arabera, software libreak gabeziak dauzka, eta ezin die Jaurlaritzak dituen behar guztiari erantzun. Egokitze prozesua lizentziadun softwarearen gastuei aurre egitea baino garestiagoa izango litzatekeela esan du Jaurlaritzak.

[Gerardo Aio Basauriko Social antzokiko kudeatzaileak](#) *El Correon*: «Antzerki konpainien saturazioa dago. Ezinezkoa da guztiak kontratatzea eta horrek sektoreari kalte egiten dio. Bilbo-ko Arte Eszenikoaren Ikastegiak iragazki lanak egingo ditu, artistak hobeto prestatu aitezko eta beste ikuskizun mota batzuk eskaini ahal izateko».

[Judaz Arrieta artistak](#) *Bizkaia! webgunean*: «Patetiko da mundu honetan artista izatea (...) Ia inori ez jako artea interesetan eta zeozelan esateko

'prostituitzen' ez bazara ez dozu ezer saltzen eta bizimodua atarata sano gatxa da. Esangura horretan, Txinan independen-zia gehiago sentiduten do».

[Blanca Izkuet Garam](#): «Diskoetxe historikoen itxieraren ondoren, diskoetxe txikien sorreraren urtea izan dugu 2007 hau, autoekoizpenen ezta-darena izan den bezalaxe. Urte luzez beste disko etxeen babespean lan egin ondoren, eskarmentu handiko hainbat musikaririk alternatibak bilatu eta bide berriak asmatzeko nahikoa ausardia dutela erakutsi digute».

Bi whisky eta limonada gatzgabe bat

Limoncello, Donostia, 2007. Zuz: Jorge Dorado, Luis A. Berdejo, Borja Cobeaga. Akt: Germán Cobos, Miriam Giovanelli, Eloi Yebra, Mauro Muñiz, Marta Rubio. 22 m.

Italiako likore tipikoenaren izenburua badarama ere, Ameriketako Mendebalde basatian kokatzen da 22 minutuko *western* bitxi hau. Irungo Zine eta Bideo Gaztea Lehiaketan zine formatuko euskal film labur onenaren saria eraman du berriki, eta horregatik dugu hizpide. Filma hiru istoriotan dago banatua, Jorge Doradoren, Luis A. Berdejoren eta Borja Cobeagaren gidoi eta zuzendaritzapean, hurrenez hurren.

Hain justu, iaz Oscar sari glamourosoetara izendatuta egon zen –eta komunikabide guztietan agertu zen– Cobeaga donostiarraren lana da pobreena. *Vaya Semanita* telebista saioko gidoilari ohiak programa horren hastapenetako aurpegi famatuei eman die protagonismoa, garbitzea atsegin ez duen sheriff baten umorezko sketch ahulean. Gehiegizko keinu jokoak *western*aren mundu oparoa aprobetxatu gabe.

Beste bi istorioei ordea barru-barrutik darie Ameriketako paisaia lehorren kutsu bakarti eta berezia: egunez meza eman eta gaez gorputzak zatikatzen

dituen predikalaria, oiloekin egindako erri-tuetan hildakoak berpizteko gauza diren amoranteak, buduak kaltetutako familia... Minutu eskasetan giro beltz eta misterioitsua aurkezten digute Dorado eta Berdejok, eta ez dira falta bi izozdun whiskyak, *can-cana* jotzen duten pianistak eta kapela buruan zaldi gainean paseatzen diren *cowboy*ak.

Hizkuntz jokoa ere originala da: ingelesa, italiara eta gaztelania, istorio bakoitzak bana darabil. Eta baliabide tekniko eta ekonomiko ugari erabiltzeko aukera izan dutela nabaria da. Oro har lan txukuna beraz, nahiz eta pistolaren bat beti geratzen den balarik gabe, eta oraingoan Cobeagari ahaztu zaio kargatzea.

MIKEL GARCIA



Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ - Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

Aukeratu ongi etorri oparia

“Kirolaz Badakit”
mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Txoriak-txori”
lamina

%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

ARGIA